

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin-behineko onespena ematea hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasaren 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako zerga erroldei

Ediktua

Nik, José Ramón Molinuevo Lañak, Amurrioko (Araba) Udaleko alkateak, hau

Jakinarazten dut:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko irailaren 9an egindako bilkuran, behin-behineko onespena eman zaie hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasa ordaindu behar dutenen 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako erroldei (espedientea: 2021/1/S328).

Espediente hori jendaurrean egongo da udal honetako kontu-hartzailetzan hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak eta oharrak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da.

Amurrio, 2021eko irailaren 9a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA